

Ibai Arriaga Sainz-Maza
«Niri marrazkiak egitea asko gustatzen zait, baina gero ez zait pintatzea gustatzen»

# «Bi ume espazioan»



## Bi Ume Espazioan

Fenix eta Pegaso bi anai, bikiak dira, 10 urte dituzte.
Nahiz eta bikiak izan, ez dute antzik.
Fenix ile beltzduna, gorputz handikoa eta argala da.
Pegaso, berriz, alderantziz: ile horiduna, gorputz txikikoa eta apur bat potoloa.
New yorken bizi dira, etxe handi batean. Euren gurasoak Gorka eta Maite deitzen dira.
Fenix eta Pegaso beti aitona-amonarekin egoten dira, euren gurasoak Nasan egiten dutelako lan, goiz-goizetik joaten dira, lanera eta oso berandu heltzen dira etxera oso aberatsak dira eta horregaitik jostailu asko dituzte baina gehien gustatzen zaiena astronautetara jolastea da.



Egun batean Fenix eta Pegaso bere aitonari egunkaria ematera joan zirenean, egunkarian albiste bat zegoela jarrita ikusi zuten:

Biharamun arratsaldean 5:30 etan espaziontzi bat jaurtiko zela bi astronautarekin. Pedro eta Kurtis deitzen zirenekin zekarren.

Pegasok esan zuen:

- Fenix ideia bat daukat, zergaitik ez dugu gure espazioko jantzia jartzen eta Nasara joaten?
- Bai! Oso idea ona, baina nola sartuko gara espaziontzira inork ikusi gabe? - Fenixek.

Jan ondoren, aitonak beti telebista ikusten zuen, jesartzera joan zenean ohar bat ikusi zuten: «Aitona, gaur gure lagun baten etxera goaz astebukaera pasatzera. Aitak eta Amak baimena eman digute beraz, ez kezkatu.»




Fenix eta Pegaso Nasara heldu zirenean inork ikusi gabe janari zakuetan sartu ziren. Hurrengo egunean esnatu bezain laster Marten zeudela ikusi zuten. Espaziontzitik bajatu zirenean korrika kobazulo batean sartu ziren. Han, bi estralurtar ikusi zituzten Big eta Bang deitzen zirenak. Lehenengo susto

ikaragarri bat hartu zuten baina gero lagunak egin ziren. Big eta Bangek nolakoa zen Marte erakutsi zieten eta nola lur azpian bizi ziren. Fenixek eta Pegasok futbolean nola jolasten zen erakutsi zieten.

Gero etxera itzultzeko ordua heldu zenean, agurtzeko orduan Big eta Bangek inori ez esateko Marten bizitza dagoenik eskatu zieten, lurtarrengandik beldur zirelako. Berriro Pedrok eta Kurtisek ikusi gabe jatako sakuetan eskutatu ziren. Bidean, kometa bat eta asteroide bat ere ikusi zituzten. Etxera heldu ziren sekretu handi baten jabe. Hurrengo egunean Fenix eta Pegaso ikastolara joan ziren. Fenix eta Pegaso Unibertsoari buruzko gaia ikasten zeuden. Bere andereñoak galdera bat egin zien gelan:

— Nork daki ze koloretakoa den Marte?

Fenix eta Pegasok izan ezik inork ez zuen eskua altxatu, esan zuten:

— Guk badakigu, gorria da.

Gero azterketa bat eduki zuten eta Fenix eta Pegasok 10 bat atera zuten. Etxera joan ziren poz-pozik azterketan bikain atera zutelako.





Paula Aldana Aldekoa
«Saskibaloira jolastea eta irakurtzea gustuko ditut»

# «Koloregabeko ostadarra»

## Koloregabeko ostadarra.

Bazen behin, Maite deituriko neskatxo eiraina. 10 urte zituen. Bere begiak berde-berdeak ziren eta bere ilea marroi-marroia zuhaitz enborra bezalakoa.

Egun batean, ikastetxean zegoela bere lehengusuarekin, Jonekin, elkartu zen. Elkarrekin planteoak egiten zeudela, zerurantz begiratuz, biak aho zabalik geratu ziren. Ez zuten sinesten gertatzen ari zena, euria parra-parra eta zuzko bola borobil-borobila batera zeuden. Hori ikustean, Maitek zera esan zion:

- Laister ostadarra irtengo da ezta?
- Zer diozu? - Ez da irtengo erantzun zion Jonek.
- Euria eta eguzkia batera ari direnean, zeruan ostadarra agertzen da ezta? - esan zuen Maitek.

Minutu batzuk igaro ondoren, itxuragabeko ostadarra agertu zen, ez zuen koloririk eta! Orduan, Jonek esan zuen:

- Hor goian dagoen hori, ostadarra ote da?
- Ez, ostadarra izateko zazpi kolore ikusi behar ditugu: gorria, laranja, horia, berdea, urdina, anila eta morea - erantzun zion Maitek.



Ostadar kolorégalbearen zergaitia jakiteko zientzilariarengana jo zuten.

Orduan, zientzilariak honela esan zien:

- Lasaitu zaitezte! Arazo honen konponbidea hauxe izango litzateke:

- Hor atzean, koloreak botatzen dituen makina bat dut, baina horretarako naturako zazpi kolore desberdinetako gauzak bilatu behar dituzue. Hau da, kolore bakoitzeko gauza bat.

Etxerantz zihoazela, zelai loratsu bat zeharkatu zuten. Buru makur arakatu ondoren, ez zuten lora gorririk bilatu. Hura bai zela tristura hura! Bat-batean, aurrerago, belartzan botata zegoen plastiko gorria bilatu zuten.

Maitek plastikoa esku artean harturik hauxe esan zuen:

-Nork bota ote du plastikoa? Plastikoak ingurua kutsatzen baitu.

Jonek orduan:

- Bai, egia da!

Bota duenak AGENDA 21eko arauak ez dakiz! Eta guk batu ezezik, eraman ere, egingo dugu. Agian kolore gorrirako baliogarria izango da eta!

Plastikoa besapean harturik itzekoren etxerantz abiatu ziren.

Bertan laranja eta banana hartu zituzten eta zuritu ondoren azalak batu eta kolore urdinaren bila hasi ziren. Ez zen erraza. Lehenik, basokada bete ur hartuz gero, egingo zegoela pentsatu zuten. Baina uraren kolorea urdina ez zela ohartu zirenean, margo urdina hartzea erabaki zuten.

Anila bilatzeko, orduak eta orduak igaroz, kolore morea eta urdina nahastea erabaki zuten.

Horretarako, jertse urdina eta esku larru moreak hartu zituzten. Kolore desberdinetako gauza guztiak bildurik zientzilariarengana

jo zuten. Bertan, bildutako gauza guztiak makinan sartu ondoren, entxufatu egin zuten. Tramankulo hura ez zebilen energi falta zuen eta!

Bihamunean, zerurantz begiratu zuten ea proposaturikoa bete zen jakiteko.

— Ez zegoen ostadarrik! Tximistak bakarrik.

Berehala, eguraldiaren informazioa bilatu zuten eta pozarren jarri ziren.

Arratsaldean eguzkia eta zerua goibeltzen zihoazen, trumoi hotsa entzutean berehala euria zarra-zarra ari zen. Ondorioz, ostadar iluna agertu zen zeruan.

Zientzilariarengana hurbildu, makina entxufatu eta zist-zast! Batean tximistak agertu zirenean makina martxan hasi zen, tximistak emandako indar handiz orroaka. Berta-tik koloreak irteten hasi ziren eta zeruan zegoen ostadar iluna, koloretsu eta distiratsu bihurtu zen.

Gaua heltzean, ostadarraren kolore bizi-biziak oraindik han jarraitzen zuten.

Hura bai zela poza hura!





Julen Armaolea
«Futbola gustatzen zait!»

# «Misterioa ikastolan»

## MISTERIOA IKASTOLAN

Udaberriko goiz epel hartan, beti bezala, ohetik jaiki eta ziztu bizian dutxa hartu, gosaldu, eta amari besarkada batez agur esan nion.

— Nora demontre zoaz hain azkar, mutiko? Galdetu zidan harrituta

— Nora joango naiz ba! - Erantzun nion ozen - Egunero bezala: Mikelen bila!

Motxila bizkarrean hartu eta bizikletaren bila jaitsi nintzen garajera. Nire pentsamenduetan murgilduta abiatu nintzen Mikelen etxera. Eta han zegoen bera, atarian nire zain.

— Berandu gabiltza! - urduritasunez esan zidan Mikelek.

Tximistaren abiaduraz zeharkatu genuen Joan Kaltzada kalea ikastolaraino. Sarrerako burdin hesia erdi zabalik zegoen, baina jolastokiak basamortua zirudien. Ez zegoen inor ere ez; ez irakaslerik, ezta ikaslerik ere. Non ote zeuden? Mikeli begiratu nion erantzun baten zain.

— Berandu gabiltza! - Esan zidan azalpen gisa.

Argi guztiak itzalita zeuden. Eskailerak binaka igotzen hasi ginen. Ez zen inolako zaratarik entzuten, ezta haurren oihurik ere. Egia esan, isiltasuna baino ez zen antzematen. Gure gelako atera heldu ginen. Kristalezko leihatilatik begiratu eta... iluntasun hutsa. Ez nion azalpenik aurkitzen. Mikelek ordea, bakarra aurkitzen zuen:

– Berandu gabiltza! – Esan zidan berriz ere.

Beharbada pelikularen bat ikusten egongo zirela pentsatu genuen, edo ordenagailu gelan, edo aretoan, edo gimnasioan...

Bilaka hasi ginen, baina ez zegoen arrastorik ere. Hilerri bat zirudien. Ez zen gure gelako ikaslerik agertzen... ezta gainontzeko geletako ikaslerik ere. Ai ere! Estralurtarrek bahitu ote zituzten? Gimnasiora hurbiltzerakoan ezezaguna egin zitzaigun ate txiki bat ikusi genuen. Elkarri ezer esan gabe atea ireki eta iluntasunean sartu ginen. Sabaia baxua zenez makurtuta ibili beharra genuen. Itsu-itsuan zeharkatzen hasi ginen pasabide luze bat. Eskuak luzatuz etengailu baten bila genbiltzan. Hura aurkitu aurretik, armiarma pare batekin topo egin genuen. Azkenik, Mikelek etengailua aurkitu eta sakatu egin zuen. Argia piztu bezain laster, karranka antzeko oihu beldurgarri bat entzun genuen. Gure aurrean beste ate bat zegoen eta, antza denez, handik zetorren zarata. Bihotz-taupadak danborradan zebiltzan atea zabaldu nuenean.

Garrasi berria, munstro itxuradun itzala lurrean, sabaiko leihatilatik eguzki-printzak, hautsez beteriko trasteak nonahi...

Sorginaren kobazuloan ote geunden? Estralurtarren espazio-ontzian? Suge erraldoi baten kabian? Bat-batean txilibitu hots batek gure gogoetatik atera gintuen.

_Jainko maitea! Lapurrak sartu zaizkit! Ai ene, beheko atea zabalik utzi dut berriz! _Beltzez jantzitako adineko emakumeak ikaratuta zirudien.

_Baina gu ez gara lapurrak _Ukatu genion_ Gelara gatozen beti bezala.

_Gelara igandean? Zuek bai, ikasle finak!

Emakumea ikastolako moja bat zen eta gu bezain harrituta zirudien. Trastelekua txukuntzen zegoela, hots eta zarata arraroak entzun zituen eta, nor ote zen asmatu ezinik zegoela, gu azaldu ginen trastelekuan. Igandea zen, eta ez astelehena.

_Agian, goizetik gabiltza _Arrazoitu zuen Mikelek.

